

Bost ikasle etorri dira aurten Europatik Erasmus programan

2008/09/17

Erasmus ikasleak iritsi dira Huhezi fakultatera. Bost etorri dira aurten, Erasmus programaren bigarren aldia, iaz baino lau gutxiago. Hiru irakasle ikasketak osatzera, eta bi Ikus-entzunezko komunikazioa. Hauek dira:

- **Sara Hansen.** University College Copenhagen, Danimarka. Irakasletza.
- **Louise Zwisler.** University College Copenhagen, Danimarka. Irakasletza.
- **Chiara Luisetto.** KHL University College, Belgika–Flandes. Irakasletza.
- **Saskia Kamphuis.** Windesheim University, Herbehereak. Komunikazioa.
- **Tieme Hermans.** Windesheim University, Herbehereak. Komunikazioa.

Joan den astelehenean **harrera egin zitzaien** Huhezi fakultatean. Goizean azaldu zitzaizkien beren ikastaldiaren nondik norakoak, eguerdian eskaini zitzaaien luntx bat, lagun izango dituzten gure ikasleekin batera, eta arratsaldean, autoak hartu eta **ostera bat** eman zitzaien Leintz bailaran, leku hauetara: Udala, Garagartza, Barajuen, Urkulu eta Apotzaga.

Bost ikasle hauek **Gabonak arte** izango dira gure artean. Aldi horretan, zenbaitetan gure ikasleekin batera ikasiko dute, eta beste batzuetan, programa berezia izango dute. **Praktikak**, berriz, batzuek Arizmendi ikastolan egingo dituzte, eta besteek, komunikaziokoek, eitb24 zerbitzuan, Bilbon.

